

Javier Ziga: margotzen maisua izan zen gizon xaloa

Iruñeko Castillo de Maya aretoak artistaren lan zabalaren adierazle bat besterik ez den erakusketa bildu du

Javier Ziga margolari iruindarra ezagutu zutenek berean maisua izan zen gizon ontzat dute. Bizi izan zuen garaiko abangoardiei erreparatu gabe, bere lanean orduko herria, pertsonak eta paisaiak dira nagusi. Hainbat tokitan sakabanatua dagoen obraren erakusle bat besterik ez bada ere, egunotan Iruñean ikusgai da Zigaren pintura.

J OAN DEN MENDEAREN AZKEN URTEETAN SORTU ZEN Javier Ziga Etxandi margolaria, Iruñean. Hark egindako lanaz asko idatzi da. Hark utzitako margolan ugariaren eta ezberdinaren lekuko da Nafarroako Aurrezki Kutxak Iruñeko Castillo de Maya aretoan heldu den abenduaren 13ra arte zabaldu duen erakusketa. Erakusketak oso esan-guratsuak diren artistaren lan asko bildu ez baditu ere, «haren lana ezagutzen ez duten belaunaldientzako adierazgarria da», Mari Kruz Ziga artistaren alabaren irudiko.

Aditu askok diotenez, Zubirirekin batera, Nafarroako margolaritzaren aitzindari izan zen Ziga, ez afiziorik ez ofiziorik zegoen tokian atzetik etorri ziren guztien bidea zabaldu baitzuen iruindarrak. Baina utzi zuen lanagatik ez ezik, bere izaeragatik ere estimatua izan zen margolaria. Mari Kruz Ziga alaba Iruñeko Zangoza kaleko etxean aitzak margotutako lanez inguratua bizi da eta, gogoratu duenez, gizon «ezin hobea» izan zen. «Ez zen ez infernukoa ez zerukoa, beti ilargian zegoen. Oso jantzia eta intelektuala zen, baina sineskorra, hodei artean bizi zen». Mari Kruzek margotzeko erabiltzen zuen txabusina zigarroek zulatuekin gogoratzen du oraindik. Oso familia xumekoa bazen ere, Nafarroan lehen pausoak emanda, Ameriketara dirua egindako Urdanpilleta lehen-gusuaren laguntzarekin atzerrian ikasteko aukera izan zuen. Madrilen aritu eta gero, I. Mundu Gerraren aurreko Parisera joan zen Ziga bere teknika eta lana hobetzera. Sanferminetako kartel lehiaketa irabazi zuen hiru urtez, marrazkilari bikaina zela frogatuz. Artearen hiriburuan, Senaren uren joan-etorrian inspirazioa aurkitu bazuen ere,

garai hartan ez zen Euskal Herriko gaiez aldendu eta, noizbehinka sorterrira etortzen zen bertako jendea, egunerokoan eta historian oinarritutako lanak pintatzeko. Ziga ez zen erori Parisen sortzen ari ziren abanguardia berrien amaraunean, baina han egindako urteak, 1912tik 1914ra, baliagarriak izan ziren artistarentzako, teknika asko hobetu zuelako. Aurrerantzean marrazkiak landuagoak izan ziren, konposaketak neurtuagoak, argiaren proiektzioak ikertuagoak, eta gorri-horien erabilera nagusi izan zen gizarteak onartutako gaietan oinarrituko zituen lanetan.

Baina 1914an I. Mundu Gerra iritsi zen eta lanean aritzen zen estudioa itxi egin zen. Iruñera itzuli eta, bertako burgesiak eskatuta, hainbat erretratu egin zituen.

Baztanekin izandako lotura

Paristik bueltan Eulalia Ariztia elizondorarekin ezkondu zen, 1917ko ilbeltzaren 30ean. Geroztik, Zigaren bizitza Baztanera loturik egonen zen, eta askotan joanen zen hara pintatzera. Ariztiatarrek Elizondoko Jaime

Urrutia kaleko Etxenikea etxean ostatua zuten eta hara joaten ziren uda oro. Lan horren lekuko dira *Elizondoko merkatua*, *Baztango paisaia* edo *Elbeteako Askoa* jauregian margoturiko *Un viatico en Baztan* maisulana. Jose Mari Apezetxea Erratzuko Elbetea etxean bizi den Zigaren iloba margolariak oso ongi oroitzen du osaba. Apezetxeak izan zuen lehen irakaslea osaba izan zen. Udako oporretako egonaldia aprobetxatuz aritzen zen lanean Zigarekin.

«Bera udan etortzen zen, eta Elizondora joaten nintzen bizikletaz egunero. Inork ez genekien pinturaz pitzik ere. Zigak kanpokoaren berri eman zidan. Begiak ireki zizkidan gauza askotan, eta erakutsi zidan nondik jokatu», gogoratu du Apezetxeak. Osaba nolakoa zen galdetzean barre egiten du. «Adin puska handia zuen haur bat bezalakoa zen. Ez zuen maliziarik deustara-



Jose Mari Apezetxea:

«Inork ez genekien pinturaz pitzik ere. Zigak kanpokoaren berri eman zidan, begiak ireki zizkidan gauza askotan, eta erakutsi zidan nondik jokatu».



ko. Arrunt gizon gozo-gozoa eta maliziarik gabea. Beretzat gizon guztiak onak ziren», dio pentsakor. Apezetxearentzat berarentzat ez ezik, inguratzen zuten guztientzat zen xaloa Ziga. Apezetxeak ez du ahazten hainbatetan eredu bezala erabili zituen Elizondoko Miserikordia gaixoei zuen harre-

